

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Behin betiko onespena ematea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza- zaren aldaketari

Toki Ogasunak Arautzen dituen Legean xedatutakoarekin bat etorriz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketaren hasierako onespeneraren ondoren izapidetu da espedientea (2025eko urriaren 13ko ALHAO, 116. zk.), eta aldaketa hori behin betiko onesten da, jarraian zehazten den moduan:

Hau dioen lekuan:

HOBARIAK

16. artikulua

1. Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute landaketa edo basoa babestutako natura inguruetan duten landa lurrek.

2. Urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede diren ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek, ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik eta haien ibilgetuan jasota ez badaude.

Hobari hau obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio edo eraikuntza obrak egiten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan.

3. Zergaren kuotan ehuneko 50eko hobarirako eskubidea izango dute babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek, behin betiko kalifikazioa eman ondorengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak eskatuta emango da. Irauten duen hiru zergaldiak amaitu baino lehen aplikatu ahal izango da, noiznahi. Aplikatuz gero, eskatzen den zergaldiaren hurrengoan sortuko ditu ondorioak.

4. Nekazaritzako kooperatibek eta lurren baterako ustiapenerako kooperatibek hobaria aplikatu dezakete landa ondasunen kuotetan, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak ezartzen duenarekin bat etorriz.

5. Kuotan hobaria jasotzeko eskubidea izango dute bizitegi izaerako ondasun higiezinak, baldin eta eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu badira, honako erregulazio honen arabera:

a. Hobaria ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotaren ehuneko 50ekoa izango da, gehienez ere 5 urteko indarraldiarekin, baldin eta autokontsumo kolektibo edo indibidualerako instalazioak badira.

b. Urteko hobariaren zenbatekoa, ekitaldi bakoitzean, ezin izango da honako hau baino handiagoa izan:

— Energia komunitate izanez gero, bazkide edo kide bakoitzari jasanarazitako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren ehuneko 15.

— Autokontsumo kolektiborako instalazio izanez gero, jabe bakoitzari jasanarazitako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren ehuneko 10.

— Banakako autokontsumorako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren ehuneko 5.

Puntu honen ondorioetarako, hau baino ez da kontuan hartuko: aprobetxamendu termikora edo elektrikora soilik bideratutako instalazioei dagokien egikaritze materialaren kostuaren zatia.

c. Autokontsumo kolektibo eta energia komunitate izanez gero, kuotaren hobaria aplikatuko zaie instalazioan parte hartzen duten higieziei.

d. Hobari honek erregu izaera izango du eta edozein unetan eskatu ahal izango da haren iraunaldia amaitu aurretik, eta, hala badagokio, eskaera egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak; beraz, ez du atzeraeraginik izango.

e. Hobari hori jasotzeko eskubidea izateko, eguzki aprobetxamendurako sistemak elektrizitatea sortzeko edo beroa sortzeko administrazio eskudunaren homologazioa izan beharko dute.

f. Hobari hori aplikatzeko, eguzki instalazioa ez da nahitaezkoa izango araudiaren arabera.

g. Eguzki energiaren aprobetxamendu termikoko eta elektrikoko sistemak batera instalatzen badira, gehieneko hobari aplikagarria ehuneko 50 izango da, muga berekin.

h. Nolanahi ere, dokumentazio hau egiaztatu beharko da: instalazioa ez dela nahitaezkoa indarrean dagoen araudiaren arabera, eta eskatutako baldintzetara egokitzen dela. Instalazioaren kostua jasotzen duen faktura xehatua, baita instalazioko partaideen zerrenda eta bakoitzari jasanarazitako kostua adierazten duen dokumentazioa ere.

i. Instalazioa kontsumo puntuez bestelako eraikin batean badago, ondasun higiezin gainerako zergaren kuotaren ehuneko 10eko hobaria emango zaie, gehienez ere 3 urtez, instalazioa hartzen duen ondasun higiezinaren jabeei.

j. Energia komunitateetan, baldin eta etxebizitzaren ehuneko 50, gutxienez, instalazioa dagoen eraikina ez den beste batean badaude, ondasun higiezin gainerako zergaren kuotaren ehuneko 10eko hobaria emango zaie, gehienez ere 3 urtez, baldin eta instalazioa dagoen ondasun higiezinaren jabe badira eta hartan parte hartzen ez badute.

k. Hobari hori bateraezina izango da artikuluan honetan arautzen diren gainerako hobariekin.

l. Aurreko artikuluan ezarritako aukerako hobariak ez zaizkie aplikatuko urtean 70.000,00 eurotik gorako diru sarrerak dituzten familia unitateei.

Hau esan behar du:

HOBARIAK

16. artikulua

1. Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute landaketa edo basoa babestutako natura inguruetan duten landa lurrek.

2. Urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede diren ondasun higiezinak, obra berrikoek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek, ehuneko 50eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik eta haien ibilgetuan jasota ez badaude.

Hobari hau obrei ekin eta hurrengo zergalditik hasi eta obrak amaitu eta hurrengo zergaldira bitartean aplikatu ahal izango da, baldin eta aldi horretan urbanizazio edo eraikuntza obrak egiten badira. Nolanahi ere, aldi hori ezin da hiru zergaldi baino luzeagoa izan.

3. Zergaren kuota ehuneko 50eko hobarirako eskubidea izango dute babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek, behin betiko kalifikazioa eman ondorengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak eskatuta emango da. Irauten duen hiru zergaldiak amaitu baino lehen aplikatu ahal izango da, noiznahi. Aplikatuz gero, eskatzen den zergaldiaren hurrengoan sortuko ditu ondorioak.

4. Nekazaritzako kooperatibek eta lurren baterako ustiapenerako kooperatibek hobaria aplikatu dezakete landa ondasunen kuotetan, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak ezartzen duenarekin bat etorritik.

5. Kuotan hobaria jasotzeko eskubidea izango dute bizitegi izaerako ondasun higiezinak, baldin eta eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatu badira, honako erregulazio honen arabera:

a. Hobaria honako hau izango da: Hobaria ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotaren ehuneko 50ekoa izango da, gehienez ere 5 urteko indarraldiarekin, autokontsumo kolektibo edo indibidualerako instalazioen kasuan.

b. Urteko hobariaren zenbatekoa, ekitaldi bakoitzean, ezin izango da honako hau baino handiagoa izan:

— Energia komunitate izanez gero, bazkide edo kide bakoitzari jasanarazitako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren ehuneko 15.

— Autokontsumo kolektiborako instalazio izanez gero, jabe bakoitzari jasanarazitako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren ehuneko 10.

— Banakako autokontsumorako instalazioaren egikaritze materialaren kostuaren ehuneko 5.

Puntu honen ondorioetarako, hau baino ez da kontuan hartuko: aprobetxamendu termikora edo elektrikora soilik bideratutako instalazioei dagokien egikaritze materialaren kostuaren zatia.

c. Autokontsumo kolektibo eta energia komunitate izanez gero, kuotaren hobaria aplikatuko zaie instalazioan parte hartzen duten higiezinei.

d. Hobari honek erregu izaera izango du eta edozein unetan eskatu ahal izango da haren iraunaldia amaitu aurretik, eta, hala badagokio, eskaera egin eta hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak; beraz, ez du atzeraeraginik izango.

e. Hobari hori jasotzeko eskubidea izateko, eguzki aprobetxamendurako sistemak elektrizitatea sortzeko edo beroa sortzeko administrazio eskudunaren homologazioa izan beharko dute.

f. Hobari hori aplikatzeko, eguzki instalazioa ez da nahitaezkoa izango araudiaren arabera.

g. Eguzki energiaren aprobetxamendu termikoko eta elektrikoko sistemak batera instalatzen badira, gehieneko hobari aplikagarria ehuneko 50 izango da, muga berekin.

h. Nolanahi ere, dokumentazio hau egiaztatu beharko da: instalazioa ez dela nahitaezkoa indarrean dagoen araudiaren arabera, eta eskatutako baldintzetara egokitzen dela. Instalazioaren kostua jasotzen duen faktura xehatua, baita instalazioko partaideen zerrenda eta bakoitzari jasanarazitako kostua adierazten duen dokumentazioa ere.

i. Instalazioa kontsumo puntuez bestelako eraikin batean badago, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotaren ehuneko 10eko hobaria emango zaie, gehienez ere 3 urtez, instalazioa hartzen duen ondasun higiezinaren jabeei.

j. Energia komunitateetan, baldin eta etxebizitzaren ehuneko 50, gutxienez, instalazioa dagoen eraikina ez den beste batean badaude, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotaren ehuneko 10eko hobaria emango zaie, gehienez ere 3 urtez, baldin eta instalazioa dagoen ondasun higiezinaren jabe badira eta hartan parte hartzen ez badute.

k. Hobari hori bateraezina izango da artikuluan honetan arautzen diren gainerako hobariekin.

l. Aurreko artikuluan ezarritako aukerako hobariak ez zaizkie aplikatuko urtean 70.000,00 eurotik gorako diru sarrerak dituzten familia unitateei.

6. Familia ugariantzako hobariak:

Zergaren kuota osoaren hobaria jasotzeko eskubidea izango dute zerga sortzen den egunean ugari izaera duten familiek.

Hobaria ohiko etxebizitzari dagokionez soilik aitortzen da. Halakotzat hartuko dira subjektu pasiboaren eta haren familiaren etxebizitza premia soilik modu iraunkorrean asetzerantz bideratutako bizitegi erabilerako higiezinak. Ohiko etxebizitzatzat hartuko da familia ugariaren kideak erroldatuta dauden hura.

Hobari horri heldu ahal izateko, subjektu pasiboaren eta familia unitateko gainerako kideen ohiko etxebizitza Erriberagoitiko udalerrian egon beharko da.

Zergaren subjektu pasiboek hobari aukera izateko eskaera aurkeztuko dute, familia ugaria dela frogatzen duen agiria eta familiaren errentaren froga-agiriarekin batera.

Behin eskaera eginda, hobaria indarrean jarriko da eskaera egin eta hurrengo zergalditik aurrera. Udal administrazioak behar diren baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, bai hobaria ematean, bai hurrengo urteetan aplikatzean, eta subjektu pasiboak hobarirako eskubidea duela egiaztatzeko behar diren dokumentu guztiak aurkezteko eskatu ahal izango du. Hala ere, subjektu pasiboek hobari honen baldintzetan eta betekizunetan gertatzen diren aldaketak jakinarazi beharko dituzte; aldaketa horiek, nolana ere, gertatu eta hurrengo ekitalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Familia ugarien ohiko bizilekua diren etxebizitzek ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan.

Hobari hori bateraezina da artikulua honetan araututako gainerakoekin eta ondorioz, zergaldi berean ezingo da hobari bat baino gehiago eskuratu.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2025eko abenduaren 4a

Alkate-lehendakaria

JAVIER GALLEGU RODRÍGUEZ